

2024ko PROIEKTU DEIALDIA : FIKZIOZKO FILM LABURRAK

Akitania Berria eskualdearekin hitzartu 2021-2024ko helburu eta baliabide kontratuaren kariatara, Kanaldude telebista kateak, 2024an, fikziozko film laburrentzat (irudi errealak) proiektu deialdi bat proposatzen du.

Proiektu-deialdiaren bururatzea : 2024ko apirilaren 30a

Txostenak telebista katean azertuak izanen dira, mundu profesionaletik datozen irakurleekin osatu hautaketa-batzordean. 2024an, Kanaldude engaiatzen da 2 film laburren aurre-erostea, orotara 9 000 eta 10 000 euroren arteko ekarpena eginez. Proiektu eramaileei azkarki aholkatzen zaie hautagarritasun irizpideak kontutan hartzea.

PROIEKTUEN HAUTAKETA

Telebista kateko ordezkariak eta mundu profesionaletik datozen irakurleek hautaketa-batzorde bat osatuko dute. Proiektuen alde bateko hautaketa 2024ko maiatzaren bukaeran berantenez egingen da.

HAUTAGARRITASUN IRIZPIDEAK

GENEROA : Fikziozko film laburrak (irudi errealak).

HAUTAGAIK :

Proiektuek gutierrez ondoko irizpide bat bete behar dute*:

- Proiektua eramaten duen ekoizpen-egitura Akitania Berria eskualdeko lurraldean finkatua izan behar da eta nagusiki ikus-entzun edo zinema ekoizten du (APE 5911 A edo C kodea duten sozietate edo elkarteak)
- Proiektua eramaten duen autore edo zuzendariak bere bizitegi nagusia Akitania Berria eskualdeko lurraldean du

- Proiektuak kultur harreman azkarra du Akitania Berriarekin; izan lurraldeko ezaugarri kultural, historiko, sozial edo ekonomikoekin.

*Proiektua Frantziar estatu kanpoko bada, Frantzian finkatua dagoen koproduttorea izatea beharrezkoa izango da.

TEMATIKAK : libre

FILMAREN JATORRIZKO HIZKUNTZA : Euskara (elkarrizketen %30a bederen).

Irakurketa-batzordeak ondoko irizpideei kasu egingen die :

- Proiektuak kalitatezkoak izatea : proposatu gaien egokitasuna, gidoiaren kalitatea eta taula zuzendaritzaren originaltasuna.
- Produkzio eta banaketa estrategia
- 2026an hedatzeko prest izatea
- Proiektuaren kariatara euskarazko gaitasun artistikoei edota teknikoei dei egitea edo horretarako formatzea.
- Proiektuek CNC eta Akitania Berria eskualdeko diru-laguntzen irizpideei erantzutea (laguntza automatikoak edo selektiboak)

PROIEKTUEN AZTERKETA

Film laburrei dedikatu diru-laguntzak galdegiteko eta muntaketa finantziario baten perspektiban, txostena nagusiki frantsesez idatzia izatea aholkatua da. Gidoia euskaraz idatzia izan daiteke.

Proiektuak 2024ko apirilaren 30a arte igor daitezke, e-postaz, fitxategi bakarrean (PDF formatuan, gehienez 10 Mo) helbide honetara: deialdiak@kanaldude.eus
Proiektuen hautagarritasuna egiaztatu ondoan eskuratze-agiri bat igorriko zaie proiektu-eramaileei, proiektua errezibitu den egunetik goiti aste bat barne.

Txostenean ondoko elementuak agertu beharko dira:

- Fitxa tekniko bat autore, zuzendari, produktore eta koproduttoreen deitura-helbideekin; produkzioaren plangintzarekin; filmaren ezaugarri teknikoekin (iraupena, formatua, hizkuntza...); filmaketa eta postprodukzio lekuekin; aktoreak, talde artistiko eta teknikoaren zerrendarekin.
- Filmaren laburpena
- Autorearen xede nota.
- Produktorearen xede nota.
- Gidoia
- Zuzendaritza nota bat filmaren tratamendua zehazteko.
- Aurrekontu zehatza

- Finantzamendu-plana, bildu diren finantzamenduak zehaztuz
- Autoreen eta film-egileen CVa
- Proiektu-eramaile den produkzio sozietatearen edo elkartearen aurkezpena.
- Autorearen eta produktorearen artean izenpetu eskubideen lagatze kontratuaren kopia bat

Hegoaldeko ekoizle bat bazara eta Akitania Berrian ekoizle bat atzeman nahi baduzu ko-ekoizpen bat eraikitzeko eta guri proiektu bat bidaltzeko, Akitania Berrian kokatuak diren ekoizle-elkarteekin harremanetan sar zaitezke :

- LA PEÑA : pena.nouvelleaquitaine@gmail.com
- LE GROUPE FICTION : legroupefiction@gmail.com

Kontaktua :

Kanaldude

deialdiak@kanaldude.eus